

Gordea onelako
lekutan zeukala,
eta lurperatzean
joanta arzezala;
bañan ura billatu
zubenak an illa,
non lurperatuta zan
joango diru billa,
obiratze kontubak
oso azturikan,
diru billa saltoka
joan zan pozturikan;
bañan ibilkera bat
egin zubenean,
azturik siñaleak
diruba non zegoan,
eta ezin billatuz
fortuna gordea,
ibilli ondorean

jo goya; jo bea,
oso nekatutikan
zan ostera jira;
señak, irakurtzera
lengoko tokira;
bañan ¡ai! ordurakotz
urturik elurrak,
ez baitzion azaldu
izkriburik lurrak.

.

Modu berean asko
engañatzen gera,
dirubaz beste gauzaz
oroitzen ez gera;
eta au dala bide
askotan atiak
ichirikan gertatzen
zaizkigu kaltiak.

OTSOA ETA ZAKURRA



Ardi larruz apainki
janzirik otsoa,
sartzen zan artaldera
tripazai paltsoa;
eta ardi papera
eginaz ondo an,
ibillirik egunaz
ardiyen ondoan,
illunabartutzean
bartzartutzenzana,

itotzen zuben, gero
jan baitzezandana.
Artaz ernegatutzen
zeudela arzaya
eta bere zakur on
ardi aien zaya,
ikusirik ardiyak
zirala faltatzen,
eta etzalako an
lapurrik azaltzen:

egun batez zakurrak
 izan zuben era,
 zerbait nabaitzekoa
 illuntze aldera;
 ikusi zuben ardi
 batek bestea an,
 nola zuben tiraka
 zokora eraman;
 ta errezelo char bat
 artaz egiñikan,
 gau guziyan etzuben
 ichi begirikan.
 Bigaramon goizean
 ardi larruz bera,
 ongi estalirikan
 joan zan artaldera;
 eta illunzeaz bat
 chokoz choko asi
 zan pisti charrik bazan
 an zezan ikusi;
 eta ala otsoa
 sarri beragana,
 joan zan zeukan ustean
 seguru zer jana;
 bañan ezaguturik
 zakurrak otsoa,
 esan zion:—aizak i
 zatar tranposoa,
 ardiyaren jantziya
 iruki arren nik,
 etzakala sinistu
 ardiya naizenik;
 eta kolpe biz bere
 jantziya atera,
 eta errabiz zion

saltatu gañera:
 otsoak ere artaz
 beroturik oso,
 ziyon zinzurra autsi
 naiean eraso;
 bañan zakurrak nola
 zeukan lepandea,
 edo kollare burni
 zorrotzez betea,
 otsoak egiñ arren
 bere alegiñak,
 sartzeko zakurrari
 gogor letagiñak,
 an eziñ irichirik
 zan artean ari,
 zakurrak lotu zizkan
 agiñak berari;
 eta arzayak biyak
 ikusirik ala
 eta makillarekin
 joanik beriala,
 otsoa makilpean
 izandu zan illa,
 etzedin berriro juan
 beste ardi billa.

.

Naiz izan bat indarrez
 ta buruz azkarra,
 baldin ta badarama
 bizitza kaskarra,
 bukaera onikan
 eztu ikusiko,
 usterik guchinean
 da oso galduko.

RAMON ARTOLA.

